




**NORA
GOAZ**
IKASTOLEN
BATZARRA



ikastolenekartea







¹ Orain arteko eztabaidan NONDIK GATOZen eta NON GAUDEn aztertu dugu. Oraingoan, NORA joan nahi dugun hausnartu, eztabaidatu eta zehaztu nahi dugu. Ikusmiran ditugun epeak 8-10 urtera begirakoak dira.

² Bestalde, egungo diagnostikoa jasotzen duen NON GAUDE txostenean kanpo-faktoreak diren bi atal aztertu ditugu baina NORA GOAZ honetan geure buruari begiratu nahi izan diogu eta kanpoko bi faktore horiek kontuan izan ditugun arren, ez dugu atal horietarako norabiderik eta erronkarik markatu. Beraz, txosten honek bederatzi atal izan beharrean zazpi ditu.

³ Hala ere, VII. Batzarrera begirako hausnarketa ez da gaurkoan abiatzen. 2020-2021 ikasturtean Euskal Hezkuntza Sistemak beharko lituzkeen ezaugarrien inguruan hausnartu eta adostu genuen eta BIHAR ENDEKALOGOIA sortu genuen. Hori da gure jomuga. Euskal Hezkuntza Sistemarako eta Euskal Herriko Ikastolen mugimendurako.



1. IKASTOLA EREDUA



⁴ ***Ikastola Eredua da gure izaera eta identitatea biltzen dituen eta, ondorioz, berezi egiten gaituena.***

⁵ Ikastola Eredua da beste sare eta eskaintzarengandik bereizten gaituena; gure identitatea eta izatea biltzen ditu Ikastola Ereduak.

⁶ Eredu herritarra proposatzen dugu; kolektiboan, ikastola bakoitzaren baitan (ikasleak, familiak eta langileak), parte-hartzean, autogestioan eta konpromisoan daukagu gakoa, hauek dira indartsu egin gaituzten ezaugarriak eta bide horretan jarraitu behar dugu.

⁷ Ikastolak herritik, herriarekin eta herrirako sortuak gara, eta horrek gidatzen du gure jarduna. Herri eragile aktiboa garen heinean, batzuetan bakarka eta beste batzuetan beste eragile zenbaitekin elkarlanean aritzen gara komunitatearen ongizatea hobetzeko asmoz.

⁸ Ikastolen mugimendua kohesionatzea dugu helburu, atxikimendua sortzea eta gizarte eragile izatea, Euskal Herri euskaldunago, justuago, feministago, ekologistago, solidarioago, ekitatiboago eta kulturantzago bat eraikitzeko.

⁹ Ikastoletako komunitate bakoitzak ikas-komunitate bat osatzen du, eta guztiok komunitate zabalago bat osatzen dugu. Euskal Herria ulertzeko, ikusteko eta bizitzeko modu asko ditugu, anitzak garelako eta izan nahi dugulako, baina badira guztiak batzen gaituzten gauzak; Euskal Herria bere osotasunean eta euskaratik ulertzeko modua. Baita Euskal Herria hezkuntzatik eraikitzeko nahia eta konpromisoa ere. Eta batzen gaituen horretan elkarrekin jardun nahi dugu. Egungo Euskal Herria ez da orain hamarkada batzuetakoa: anitzagoa da, kolore eta forma askotakoa, bizitzeko eta sentitzeko modu desberdinez betea. Gure ikuskera eta egiteko moduak aberastasun horri egokitu eta denona den gure proiektua denon artean eraikitzeko indar bilakatu nahi dugu.

¹⁰ Ikastolak herritik sortu gara. Euskal gizartearen izaera parte-hartzailean eta kolektiboan oinarrituta, titulartasunari baino, herritartasunari kasu egiten dion ereduak gara. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak gara, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dugu, Zerbitzu Publikoa eskaintzen dugun kooperatiba edo elkarteak gara, eta horrek gure eguneroko jardunari eragiten dio erabakiak hartzeko moduetatik hasi eta esku-hartze edota gure pertsona-ereduraino. Izaera kooperatibo euskaldunak ardazten gaitu.

¹¹ Familiek (hezkuntza komunitateko beste eragileekin batera), eragile aktiboak izan behar dutelako, toki propioa dute ikastolako egunerokoan, ikastolako bizitzan; erabaki organoetan parte hartu eta erabakiak hartuz, seme-alaben hezkuntza arduraren parte-hartuz eta hezkuntza proiektua elkarrekin eraikiz. Azken finean, eragile konprometituen izateak ezaugarritzen ditu ikastolen izaera eta izatea. Ikasleak erdigunean kokatzen dituen ereduak da gurea. Ikasleak dira, dudarik gabe, gure proiektuaren bihotza. Eurentzako gaude, eurentzako gara. Eta **eurentzako** horretatik, **eurekin** izatera pasa nahi dugu. Ikasleak erdigunean jarri behar ditugula diogunean, adinari egokitutako eta ahalmen zein gaitasunen arabera parte-hartze zuzenaz ere ari gara. Gurasoen parte-hartzea sustatzeko eta parte-hartze hori erreal eta esanguratsua izan dadin beharrezkoak diren hausnarketak egingo ditugu, egoeraren diagnostikoa eginez eta hobekuntzak txertatuz. Honetaz gain, hauen parte-hartzea sustatze aldera, beren seme-alaben hezkuntzan eragin zuzena daukaten ekimenak bultzatuko ditugu.



¹² Ikastolaren eta Ikastola Ereduaren bueltan ari diren profesional guztien parte-hartzea, konpromisoa eta inplikazio aktiboa ezinbestekoa zaizkigu honetan. Komunitateko atal esanguratsua osatzen dugu guztiok, eta argi izan behar dugu zein den honetan guztian jokatzeko dugun rola eta zer den guregandik espero dena. Proiektuarekiko atxikimenduz harago, militantziaz harago, partekatzen dugun pertsona eredu bati begira lan egitea eskatzen zaigu. Kontziente izan behar dugu horrek gure eragin zuzena duela, euskal herritar ereduaz ari garenean, gutaz ere hitz egiten ari baikara. Ikastola eredu eta ikastola proiektua bereziak dira, ikasle, langile eta familiek misio eta balio zehatzak dituzte eta horiekin bat egiten duten profesionalak kontratatu eta prestatu behar ditugu. Ikastolon mugimendua osatzen dugun komunitatea gure balioen inguruan kohesionatu behar dugu eta mugimenduko kide izatearen harrotasuna indartu. Profesionalen parte-hartzean eta konpromisoan eragina du profesionalak ikastolako bazkide izateak. Hori dela-eta, kooperatiba eredu desberdinen inguruko hausnarketa egingo dugu.

¹³ Egun ere, ohiko ezaugarri eta indarguneak esleitzen zaizkio ikastola sareari; euskararen lanketak (soziolinguistika, ekolinguistika, eleaniztasuna...), euskal kulturaren transmisioak, sorkuntzak, etengabeko berrikuntza pedagogikoa, kooperatibismoaren eta jendartearen artean elkar eragiteko sena ikastolen oinarri edo izateko arrazoi izaten jarraitu behar dute. Hori horrela izanda, kulturaren transmisiorako eta sorkuntzarako espazioak zaindu behar dira eta horretan egunerokoa diharduten zenbait arlori, Arte Hezkuntza bezalako arloei, orain arte izan ez duten lehentasuna eman beharko litzaieke.

¹⁴ Ikastola Ereduak jendartearen abiadura handiko aldaketaren aurrean (demografia, balioak, digitalizazioa, aniztasuna), baditu egungo beharretara egokitu beharreko zenbait elementu, gure herriarekin dugun konpromiso soziala berrituz eta misio herri-gile argi bat proiektatuz. Beraz, komunitate osoarekin (Ikastola barrura eta kanpora begira) oinarrian ditugunak indartu (nazio ikuspegia, herritar-komunitarioa, euskaltzaletasuna, euskal kulturaren transmisioa, kooperatiboa) eta balio berriak erantsi, indartu eta hedatu behar dizkiogu gure ereduari; inklusioa eta aniztasuna nagusiki.

¹⁵ ***Ikastola-eredua indartzera, hedatzera eta berariazko sorreran genituen balioak eguneratzera eta gaurkotzera GOAZ, gure erabaki eta jardura guztietan erreferentzia eta gida izan daitezten. Era berean, gaurkotutako Ikastola-Ereduaren transmisioa ikastolaki-deekin (egungo familiak, irakasleak, ikasleak batez ere, ikastoletako funtzionamendu eta gobernu-organoetako arduradunak), eta euskal gizartearen sustatzera GOAZ.***

Nola egingo dugu?

1. Parte-hartzea

¹⁶ Ikastola proiektuak komunitateko kide ezberdinei ematen dizkien aukerak landu eta zabalduko ditugu, norbanako atxikimendua garatzeko eta proiektua indartzeko. Hego Euskal Herrian (daukagun izaera juridiko kooperatiboa baliatuz) parte-hartze sozietarioa bultzatuko dugu eta, orohar, zazpi lurraldeetan parte-hartze komunitarioa eta kooperatiboa, gobernantza demokratikotik antolatua. Familien eta profesionalen parte-hartzea eta konpromisoa ezinbesteko direnez, Hego Euskal Herrian ikastolen egitura juridikoa kooperatiba integrala izatea sustatuko dugu. Parte-hartzea bultzatzeko, ezinbestekoa da ikastola komunitatea osatzen dugun kide guztiek Ikastola Eredua ondo ezagutzea, horretarako indar berezia jarriko dugu komunitateko kide guztiei eta bereziki berriei, ereduaz azaldu eta transmititzeko, ezinbestekoa baita aurrera egiteko.



2. Herrigintza

Hezkuntzako eragileekin, euskalgintzakoekin, gizarte eragileekin eta instituzionalekin harremanak estutu eta aliantzak landu eta gizarteratuko ditugu herrialde guztietan, maila nazionalean zein maila lokalean. Euskalgintzarekin saretuko gara, eta hezkuntzako gainerako eragile zein ikastetxeekin zubiak eraikiko ditugu, auzolana herri zein nazio mailan praktikara eramanez eta gure misio eraldatzailea eskuzabaltasunez praktikatu. Euskalgintzaren parte garen heinean, Euskal Herriaren euskalduntzerako estrategiak partekatu eta martxan jarriko ditugu auzolanean gure onena eskainiz (kultur transmisiorako tresnak, nazio ikuspegia), beste batzuegandik jasoz (inklusioa, aniztasuna) eta hezkuntzatik herria eraldatuz. Herri hezitzaileen filosofiaren zabalpena sustatuko dugu, jarrera aktiboa bultzatuz. Auzo, herri eta inguruko hezkuntza eragileekin zubiak eraikiko ditugu eta aliantzak landuko. Era berean, herrietako bestelako eragileekin ere saretze eta aliantzak osatzeko lan egingo dugu: elkarte kulturalak, atzerritar jatorriko bizikideen elkarteak... Eta Udal Hezkuntza Batzorde eta hezkuntza mahaietan parte hartuko dugu, hezkuntza eredu komunitarioa Ikastola Ereduaren ahalik eta berdintsuena izan dadin.

3. Ikastola Ereduaren balioak

Ikastola Eredua osatzen duten balioen inguruko hausnarketa egingo dugu, gai hauekiko posizioa berrituko dugu eta ikastolok eta Ikastolen Elkartek Ikastola Eredua osatzen duten balioen betetze-maila neurtzeko, hauen zehaztapena adierazleen arabera bermatuko duen sistema eraikiko dugu.

- Euskalduntasuna
- Herrigintza
- Eraldaketa pedagogiko integrala
- Konpromiso ekologikoa
- Inklusioa eta aniztasuna
- Feminismoa
- Konpromiso soziala
- Naziotasuna
- Elkartasuna
- Pertenentzia
- Ikuspegi kolektiboa
- Elkarlan kooperatiboa
- Auzolana
- Taldekotasuna
- Gobernantza eta kudeaketa aurreratua
- Partaidetza

4. Ikastola Eredu gaurkotua

Diskurtso egituratu baten bidez jendarteratuko dugu Ikastola Eredua. Ikastoletako eta Ikastolen Elkarteko profesionalak, gurasoak eta ikastoletako lagunak eta laguntzaiak, hots, Ikastola osatzen dugunok balioan jarriko dugu Ikastola Ereduak Hezkuntza Sistema eraldatzeko egiten duen ekarpena, eta ikastolei horretan sakontzeko irizpide eta baliabideak eskainiko dizkiegu. Eredu herritarra zehaztuko dugu, horren aldarriaren gidaritzan Ikastolen Elkartek hartuz, ikastola guztientzat baliagarri izango diren bitartekoak garatu eta eskainiz. Komunikazio estrategia osoa eta ausarta bideratuz, kanporako nahiz barrurako lana egingo dugu, barruranzkoari lehentasuna emanez. Bietan ere jarrera irudimentsuarekin jardungo gara.

5. Autonomia

Ikastolok, sare berezitu gisa, gure orain arteko autonomiari eusteko borondate irmoa daukagu, autonomia hau defendatuko dugu eta hortik eratorritako autogestioa defendatuko eta baliatuko dugu Ikastola Eredua etengabe eguneratzeko eta eraginkorrago bihurtzeko Euskal Herriaren mesederako. Ikastolen Elkartearen barruan ere, irizpide amankomunak adostea eta denek oinarri orokor berdina partekatzea ezinbestekoa da.



6. Taldekotasuna

Ikastolen Elkarteko zein Ikastolako kide izatearen eta erantzukidetasunaren sentimenduak landu eta sustatuko ditugu, ikastolak berezko dituen proiektu eta filosofiarekin lerrokatuz eta hauek gauzatuz. Ikastolon mugimendua osatzen dugun komunitatea gure balioen eta jardueren inguruan kohesionatuko dugu eta mugimenduko pertenezia-sentimendua eta atxikimendua indartu, elkar zainduz eta euskal komunitatetik urrunen dauden horiengan arreta berezia jarriz. Horretarako, ikastola bakoitzak duen historia, kultura eta ibilbidea kontutan izanda, errespetatuz eta ikastola bakoitzak dituen berezitasunak ulertuz eta bere beharrei erantzuten saiatuz, ikastolen mugimenduaren kohesioa elikatzen eta indartzen jarraituko dugu. Ezinbestekoa da ikastolaren proiektuarentzat eta komunitatearentzat lanean ari garenok proiektu eta filosofia horren parte garela sentitzea, eta zentzu honetan, oinarrikoa da Ikastolen Elkarteak horretarako lan egiten dugunokiko begirada ere zaintzea; horrekin batera, arlo guztiak berrikuntza pedagogikoaren baitan, maila berean begiratuak eta tratatuak direla sentitzea eta horretarako urratsak egitea. Lanerako eta saretzeko baliabideetan oreka, inpartzialtasuna sentitzea: proiektua egikaritzeko beharrezko material, formakuntza, mintegi... Benetako talde kohesioa lortzeko eta mugimenduko kide izatearen harrotasuna indartzeko ezinbestekoa da oreka, inpartzialtasuna eta pertenezia sentimendua zaintzea.

7. Garapen iraunkorra

Gure jardueretan Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIHak) modu aktiboan sustatuko ditugu, eremu guztietan, helburuen lorpenerako *tempo*-ak orekatuz eta zainduz, sinkronizatuz. Hauek bultzatu, garatu eta hedatzeko bideak modu analitiko-kritikoan landuko dira.

8. Parekidetasuna

Pertsonen arteko aukera berdintasuna bermatu eta sustatuko dugu. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiegu beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, generoa, maila soziala, sexu-orientazioa eta ahalmen urritasuna oztopo izan gabe. Hezkidetzak ikastolako eremu guztiak —ikasgelaren mailan, irakasleen prestakuntzaren mailan eta antolamendu eta gobernantza mailetan— zeharkatzen dituen zenbait gai nagusi jorratzen ditu. Horregatik, ikastoletan hezkidetzak planak bermatzen eta sustatzen dira, ikasle guztiei berdintasunean bizitzen ikasteko aukera emateko. Helburua, ikastolan bertan, kirolean zein aisialdian eta familian, hezkidetzak-balioetan oinarritutako inguruneak sortzen laguntzea izango da. Honetan eredu izateko, koherentziaz jokatzeko eta lan baldintzetan oreka eta ekitatea zaindu eta bermatzea, Ikastolen Elkartearen garapenerako plan estrategikoaren oinarrietako bat izango da.

9. Laikotasuna

Sinesmen askatasuna bermatzeko, erlijioak, fede gisa, curriculumetik kanpora utziko ditugu, ez bada jakintzaren begirada zientifiko eta kultural hutsez ekiteko. Gure egunerokotasunean aukeratzen ditugun erreferentzia kulturaletan arreta berezia jarriko dugu (Gabonetako ipuin eta antzerkietan, abestien letren eguneraketan, deitura edo izendapenetan...).



10. Saretzea

Ikastolen arteko saretzea eta elkartasuna sustatzeko bide berriak arakatuko ditugu eta orain artekoen gaineko gogoeta egingo dugu, Ikastolen mugimendua indartzeko, praktika onak elkar-banatzeko eta elkarri elikatzeko. Ikastolen arteko kolaborazioa eta senidetzeak eta ikasleen, familien zein irakasleen arteko trukeak burutuko ditugu, batez ere errealitate ezberdinak dauzkaten ikastetxeen artean (Administrazio ezberdinak kontuan hartuz). Saretze helburu horrekin, ikastola bakoitzak arlo ezberdinetan aurkeztu dezakeen *knowhow*-a (pedagogia, kudeaketa, teknologia, antolaketa, berrikuntza,...) besteen eskura jarriko dugu esperientzia aberasgarriak bultzatu eta jakintza komunitarioa partekatuz. Ikastoletan esku-hartzeko gai eta prest diren adituen Euskal Herriko zerrenda sortu eta partekatuko dugu.

11. Nazioarteko ikusmira

Iturri ezberdinetatik edaten, errekonozimendua bilatzen eta antzeko errealitate eta helburuak dituzten erakundeekin aliantzak sortuko ditugu, hobetzen lagun gaitzaketen mundu mailako beste esperientzia batzuk ezagutu eta elkarlana bultzatuz. Euskal Herriatik kanpoko euskal lurraldeak ere kontutan izango ditugu: diaspora, euskal etxeak, Euskal Herriatik kanpoko ikastolak (Boiseko Ikastola...)

12. Sormena

Ikastolak gizarteak eskatzen duenarekin lerrokatzeko, ikerketarako eta berrikuntzarako lan-ildoak, sormena eta irakaskuntzaren etengabeko eraldaketa sustatuko ditugu, beti ere gure balioekin lerrokatuta: materialgintza, formazio planak... momentuko joerak kontutan hartuz. Sormenarekin lotura zuzena izan behar du esperimenterako. Ikastolen Elkartearen barruan 114 ikastola gaude: esperimenterako eta sormenerako esparru zeharo aberatsa. Ikastolen Elkarrekin laborategi bat izan behar du.

13. Herri bisioa

Gaur egun Euskal Herriko zazpi lurraldeetan eragiten duen hezkuntza-eragile bakarra da gure mugimendua. Horrek herri ikuspegia izateko aukera eskaintzen digu, bai eta hezkuntzaren egoera eta beharrak zehaztekoa ere.

14. Eredu kooperatiboa

Historikoki ikastolen ezaugarri bereizgarria izan da eredu kooperatiboa. Hori gure izaerari, lan egiteko moduari eta esku-hartzeari lotu zaie, eta hala izango da etorkizunean ere.



2. IKASTOLEN ELKARTEA



³⁰ Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartearen 2009an sortu zen eta bere Estatutuek jasotako helburu hauekin sortu zen: bere bazkideen hezkuntza-proiektu komuna, IKASTOLA hezkuntza-proiektua, garatzea, bazkide bakoitzari bere berariazko hezkuntza-proiektua garatzen laguntzea, bere bazkideak talde moduan ordezkatzeko eta hezkuntza euskalduna bere bazkideen esparrutik harago ere sustatzea. Hau da, ikastolak batu eta kohesionatzeko helburuz, ikastola mugimendua indartu eta saretzeko eta baita kudeaketan eraginkortasuna irabazteko ere. Aurrerapauso estrategikoa izan zen bere momentuan, eta hasierako helburu horiei begira lanean jarraitu dugu eguneraino.

³¹ Harlauza ilara amaigabea da; bata bestearen atzetik jarri eta pausoak ematen jarraitu dugu. Pausoz pauso bidea amaigabea da; bata bestearen atzetik egin dugu aurrera, eta urratsak egiten jarraitu dugu. Ez da bidea bukatu, baina iparra garbi daukagu.

³² Hezkuntza mailako eragile sozial indartsua da Ikastolen mugimendua. Euskal gizartean, euskalgintzan eta hezkuntzan garrantzia duen mugimendu soziala da gurea, eta izaten jarraitu nahi du. Ilusioa berreskuratu eta indartu egin behar da. Euskal gizartean, euskalgintzan eta hezkuntzan garrantzia duen mugimendu soziala da gurea eta sendo erakutsi behar diogu jendarteari.

³³ Ikastolen Elkarteak ordezkatzeko dituen ikastola guztiak. Halaber, lurraldez lurralde ditugun ezberdintasunak aintzat hartuz, Ikastolen Elkarteak EAEn, Seaskak Iparraldean eta NIEk Nafarroa Garaian ordezkatzeko dituzte bertako ikastolak eremu administratibo bakoitzean. Ezinbestean elkar ezagutzen dugu eta elkarlanean jarduten dugu, baina egiten dugunari era bateratuagoan ekiteko erronka daukagu interes orokorrak elkarrekin hobeki defendatzen baititugu.

³⁴ Erronka transbertsalak identifikatu eta definitu behar ditugu eta guztiok partekatzen dugun estrategia batean oinarrituta aurre egingo diegu. Litekeena da erronka bakoitzaren aurrean era ezberdinetan jardutea batean zein bestean, erakundeak, administrazio ezberdinetako arautegiak eta lan egiteko moduak ere ezberdinak diren heinean. Baina era koherentean eta koordinatuan arituko gara partekatutako helburuak berdinez baitira.

³⁵ Badira, baina, Euskal Herriko ikastolok betetzen ditugun egitekoak eta horietan ere oinarri partekatuak ezarriko ditugu: ikastolen izenean gobernu ezberdinekin negoziatzea, ikastolei eskaintzen zaien aholkularitza pedagogiko, laborala, juridikoa, finantzieroa edota kooperatiba eta hezkuntza erakundearen kudeaketaren ingurukoa eta abar.



Euskal Herriko ikastola guztientzat “aterpe” eta “erreferentziazkoa” den elkarteak izatera eta Euskal Herri luze zabalean kokatzen diren 114 ikastolak kidetza eta identifikazio mailan batzen dituen nazio egitura duen erakundea indartzera GOAZ, eta horretarako urrats berriak egingo ditugu.

Nola egingo dugu?

1. Ikastolen Mugimendua

Tokian tokiko errealitatea kontutan hartuta, eragile gisa, Euskal Herria eta euskal hezkuntza ulertzeko dugun ikuspegitik abiatuta, gure planteamenduetan sakontzen lagunduko diguten hausnarketak bideratuko ditugu ikastolekin, gure komunitatea kohesionatzeko eta ideologikoki indartzeko, komunitatez kanpokoak erakartzeko eta gizartean eragiteko. Betiere herri interes komuna kontuan izanik. Hausnarketa horiek partekatutako izango dira eta ildoak zein estrategiak adosteko parte-hartze markoak sortuko ditugu. Ikastolen Elkarteak ikastola bazkideen zerbitzura egongo da. Ikastolen Elkarteak eta ikastola bazkide guztien arteko elkarrekintza areagotuz. Elkarrekintza bi norabidetan emango da. Ikastolen Elkarteak ikastola bazkideen ekarpenak jasoko ditu gainerako Ikastolen mesedetan jarriz eta beharrezkoa den kasuetan lidergotza hartuz.

2. Ekarpena jendartean

Etengabe berrituko dugu hezkuntzarekiko gure posizionamendua, eta gizartearekin partekatuko ditugu egiten ditugun hausnarketak. Mugimendu berezitua eta berritzailea garen neurrian, euskal gizartean eta hezkuntza-sisteman erreferentziazkoak izango diren planteamenduak landu, garatu eta abian jarriko ditugu:

- Hezkuntza Marko Orokorra
- Hezkidetzak
- Inklusio-markoa
- Hezkuntzaren digitalizazio-eredua (etiko, arduratsua eta pedagogikoa)
- Hizkuntzen Tratatua Integrala
- Euskal Curriculuma eta tokian tokikoa
- Hizkuntza Proiektua
- Aisialdia (egitura nazionala)
- Euskal Kulturaren transmisioa

3. Interlokuzioa

Hiru administrazioekin harremanak eta solaskidetzak modu koordinatuan eta ikuspegi orokorarekin gauzatuko ditugu. Horretarako erabaki organoak lurralde guztietako kidez osatuta daudela bermatuko dugu.

Gobernantza demokratikotik antolatua, komunitate aktibatu, saretu eta ahaldundua helburu. Hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan ikasle, guraso nahiz langileen erantzunkizunen banaketan eta parte-hartzean oinarrituta elkar zainduz jardutera GOAZ.

Nola egingo dugu?

1. Ikastolen Elkarteko erabakitze-organok

Ikastolen Elkarteko eta Elkartasun Kutxako erabakitze-organoen osatura, funtzioak eta funtzionamendua berraztertuko ditugu eta, hala badagokio, berritu egingo ditugu. Honetarako, Estatutuak eta Barne-araudiak berraztertuko ditugu eta eguneratuko ditugu. Berrazterketa eta eguneraketa horren oinarrian parte-hartzea, gardentasuna eta hurbiltasuna egongo dira. Lanerako espazio kolaboratibo berriak sortuko ditugu. Ikastolen Elkarteak bere jardunaren inguruko gardentasuna bermatuko du. Oinarritzko dokumentuak eskuragarri jarriko ditu edonork ikusi ahal izateko.



42 2. Lidergo partekatua

Ikastolen Elkarteko Artezkaritza Kontseilua eta Zuzendaritza Taldea ahaldundu egingo ditugu lidergo partekatu indartsu baterako. Era berean, gure oinarriekin sintonian lan egingo duen lidergoa behar dugu.

43 3. Gardentasuna

Orain arte bezala, ditugun kanal eta foro desberdinak baliatuko ditugu informazioa komunitatearekin gardentasunez eta arduraz partekatzeko.

44 4. Ikastolen jaiak

Bost lurraldetan egiten ditugun IKASTOLEN JAien inguruko hausnarketa partekatua egingo dugu, eta helburu ezberdinak ere egon daitezkeela onartuta, helburu komunak ezarriko ditugu, betetzeko konpromisoa hartuko dugu eta egungo errealitatera moldatuko ditugu. Jaiak ikastolen mugimendua ikusarazteko baliatuko ditugu.

45 5. Elkartasun Kutxako Batzorde Teknikoa

Elkartasun Kutxako Batzorde Teknikoa lurralde guztietako kidez osatuko dela bermatuko dugu. Era berean, Elkartasun Kutxaren ezagupena gure komunitatean zein gizartean bermatzeko komunikazio estrategia berrituko dugu.

Ikastolen autonomia eta interkooperazioa bermatuko ditugu. Tokian tokiko ikastola bakoitzak bere proiektua eraginkortasunez garatu ahal izateko, ikastola bakoitzari lanean ari den errealitatean eragiteko baliabide materialak ziurtatzeko lan egingo dugu, elkarlanak martxan jarriko ditugu eta ikastolek gardentasunez eta autonomiaz giza baliabideak zein materialak kudeatzeko eskumena aitortzen jarraitzera GOAZ, elkar aberastuz.

Nola egingo dugu?

47 1. Komunikazioa

Gure estrategia komunikatiboa birpentsatu eta eguneratuko dugu gure egunerokoa sistematizatuz. Ditugun komunikazio-tresna ezberdinen hausnarketa egingo dugu bakoitzaren funtzioak, izaera eta helburuak zehazteko, baita komunikazio estrategia aldaketa egiteko ere eta lurralde guztietarako baliagarriak izango diren tresnak sortu eta bultzatuko ditugu. Ikastolen Elkartea, ikastolen laguntzaz, behar komunikatiboak identifikatuko ditu eta horretarako, komunikazio akonpainamenduak eskainiko ditu. Ikastola Ereduaren bereizgarri garrantzitsuenak eta irudia zabaldu behar den kasuetan, Ikastolen Elkartea ikastola guztien ahotza izango da komunitatea indartzeko eta egiten duguna nahiz garena gizarteratzeko.

48 2. Elkartasuna

Elkartasuna da gure ereduaren ezaugarri garrantzitsuenetakoa eta bere adierazpenik garbiena Elkartasun Kutxa da. Zazpi lurraldeetan eta Elkartasun-printzipioetan oinarrituta, Ikastola Eredua garatzeko tresna gisa, sendotu eta ezagutzera emango dugu eta ikastolen mugimendua osatzen dugun ikastola guztiak eta bakoitza bizirik eta egonkor mantentzeko tresna gisa definituko dugu. Besteak beste, Elkartasun Kutxaren printzipioak, hauen hedapena, sozializazioa eta diru iturriak berraztertuko ditugu, indartzeko helburuarekin. Ondorioz, Elkartasun Kutxaren printzipioak eta baliabideen aplikazioa berraztertuko ditugu. Elkartasun Kutxaz gain, gure baliabide material, giza baliabideak eta ditugun jakintzak denon zerbitzura jartzeko moduak bilatuko ditugu, elkartasuna era integral batean ulertuz eta elkarlanaren bidez ikastolen arteko proiektu komunak sortuz. Honetarako berariazko egiturak sortuko ditugu.



3. Aholkularitza

Ikastolei aholkularitza pedagogikoa, laborala, juridikoa eta finantziarioa (ikerketarako, formakuntzarako, transferentziarako,...) emango dizkiegu bakoitzaren abiapuntua oinarri hartuta eta ikastola bakoitzak dituen beharretara egokituta. Horrez gain, ikastola guztiek ezinbestekoak dituzten barne kudeaketa eraginkorrerako aholkularitza bideratzeko tresnak sortuko ditugu. Aholkularitza pedagogikoari dagokionean, materialgintzako aholkularitzaz haratago, korrante pedagogiko berrien inguruko formazioak eta aholkularitza eskainiko dizkiegu ikastolei. Guzti honetarako, ikastolentzat eremu ezberdinetan erreferentzialak izango diren profesionalen hornituko da Ikastolen Elkarte.

4. Aitzindaritza

Ikastolen mugimendua aitzindari izan da bai maila pedagogikoan eta baita Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren planteamendu guztietan ere. Datozen urteetan, indarra galtzearen arrazoen azterketatik abiatuta, lidergo hori berrindartuko dugu. Maila ideologikoan nahiz pedagogikoan, ikastola guztiok adostu berri dugun **Hezkuntza Marko Orokorrean** oinarriturik, hezkuntza-sistema hobetzeko eta eraldatzeko zazpi herrialdeen aniztasuna eta errealitate desberdinak kontuan hartuko dituen proposamenak egingo ditugu.



3. LURRALDE TASUNA

⁵¹ Lurraldetasuna ikastolen mugimenduaren zutabe garrantzitsua izan da eta da, euskararekin batera. Naziotasuna ukatua duen herria izanik ere, Euskal Herrirako hezkuntza proiektu propio eta burujabea eraikitzeke hautua egin genuen hasiera hasieratik. Etengabe urrats berriak egiten aritu gara; ez da beti erraza izan. Gure antolaketa ereduaren barruan ere ikastolen egitura desberdinek finantziario iturri eta esku-hartzeko aukera ezberdinak ditugu. Lurralde ezberdinetan euskararen ofizialtasunaren errealitateak oso dira ezberdinak eta, ondorioz, administrazio ezberdinek ematen dioten trataeran dago gako nagusia. Honetan guztian ere ikastola mugimendua, ikastolen sarea, kohesionatzeko eta saretzeko ekimen gehiago jarriko ditugu martxan.

⁵² Jardun eta gogoeta partekatu sakonagoek eramango gaituzte estrategia partekatura eta honek Administrazio ezberdinen aurrean gure nortasuna sendotzera eramango gaitu.

⁵³ Gai izan gara gure arteko elkartasun mekanismoak sortu eta indartzeko (Elkartasun Ikastolak europar kooperatiba, esaterako) baina, helburuen baitan, baliabide (lantalde, sare...) berriak ere asmatu beharko ditugu. Ez hori bakarrik; orain ditugun inguruan ere eztabaidatu beharko dugu eta etorkizunean izango ditugun proiektu estrategikoen mesedetan baliatu: ikastolen hedapena, Euskal Herrirako proiektuen sustapena, nazio eraikuntzari egingo dizkiogun ekarpenak,... Horien bitartez bakoitza eta guztiak, ikastolak eta mugimendua, sendotzea dugu helburu, eta bideragarritasun perspektibatik egun baino sendoagoak izatea.

⁵⁴ ***Ikastolen Elkarteak Euskal Herria bere osotasunean landuko du. Dagokion lurralde bakoitzeko eta tokian tokiko errealitatea kontuan izanik, osotasun batetik abiatuko gara, errealitate guztien aniztasunari zentzu komuna emanaz. Euskal Herriaren lurralde osoari eragitera GOAZ***

Nola egingo dugu?

⁵⁵ **1. Erreferentziazko Elkarteak Ikastola guztientzat**

Ikastolen Elkarteak zazpi lurraldeetan kokatzen diren ikastola guztientzako erreferentziazko elkarteak izan dadin, komunikazio estrategia bateratu, koordinatu eta anitzak landuko ditugu, tokian tokiko errealitatea kontuan hartuz, bai barrura zein kanpora begira. Ikastola markaren erabilera sustatuko dugu. Kanpora begirako irudi bateratua, koherentea sustatzeko, barnera begirako erreferentziazkoa izatea zaindu eta bermatuko da. Beste arlo guztietan ere ikastolen arteko elkarlana eta partekatzea areagotuko dugu, beharrezko bideak jorratuz (materiala, kudeaketa, gurasoen artean, irakasleen artean...).

⁵⁶ **2. Lan eta erabakitze-marko nazionalak**

Lanerako eta erabakitzeko marko nazional berriak sortuko ditugu, eta Artezkaritza Kontseiluan nahiz Zuzendaritza Taldean nazio ikuspegia areagotzeko neurri zehatzak hartuko ditugu. Bestalde, lantalde nazionalak sortuko ditugu gai ezberdinak lantzeko. Lantalde horietan lan egingo duten pertsonak lurralde, eremu eta alor ezberdinetako langileentzat erreferentziazkoak izango dira. Lurralde ezberdinetako irakasle eta ikasleen arteko harreman zuzenak indartzeko baliatuko ditugu lantalde hauek. Gure identitatearen zutabe garrantzitsuenak eta Euskal Herriaren ikuskera nazionala nola garatu landuko duen lan taldea eratuko da.



57 3. EHIko langileen kontratazioa eta hautaketa.

Ikastolen Elkartean arituko diren ardura postuak eta langileak hautatzeko orduan, oso kontuan izango dugu lurralde ezberdinetako ikuspegia emango diguten langileak aukeratzea, bai Ikastolen Elkarteko langile zuzenen kasuan, eta baita langile partekatuaren kasuan ere.

58 4. Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartearen Estatutuen inguruko hausnarketa

Ikastolen Elkarteari, NIEri eta Seaskari aitortzen zaizkien eskumenak berriz pentsatu eta lurraldetasun ikuspegi handiagorekin egingo dugu bidea. Ikastolen Elkartearen egitura, barne funtzionamendua, giza baliabideak eta baliabide materialak berraztertzea komeni da ditugun etorkizuneko erronketara egokitzeko.

59 5. Kanpo proiektzioa

Ikastolak dugun egitura sozietarioak (europar kooperatiba), ikastola eredia indartzeko baliagarria izateaz gain, ditugun muga administratiboan oinarritutako gaitortzeak ahalbideratu du. Dugun egitura hori ez da ezaguna, baina ematen digun aukera baliatuko dugu gure herritik kanporako proiektzioarako. Egitura horrek ematen digun aukera baliatuko dugu Euskal Herrian bertan eta gure herritik kanporako proiektzioarako eta Europako testuinguruan dauden laguntzak eskuratzeko. Sortzen ditugun ereduak, lanketak, materialak eta aholkularitzak Euskal Herrikan kanpora zabaltzeko aukera aztertuko dugu. Era horretan gure kanpo proiektzioan sakontzeaz gain, gure eredia zabaltzeko aukera ere izango genuke, proiektu berriak gauzatzeko finantziakzioa lortuz. Era berean, Euroeskualdean eta Europan berean, gure izaeraren aitortza aldarrikatu eta landuko dugu.

60 6. Egonkortasuna

Gure izaera herritarra aldarrikatuz, Euskal Herriko ikastola guztientzat baliabideak negoziatzen jarraituko dugu sendotasun osoz. Hego Euskal Herrian eskola mapa eta itunak negoziatzeko orduan eta Ipar Euskal Herrian irakasle postuak lortzeko orduan.

61 Lerro bateko ikastolen biziraupena ziurtatzeko borondate irmoarekin jokatu dugu, eta ikastoletan matrikulatu nahi eta ezin duten familien eta umeen borondatea eta eskubideak errespetatu daitezkeen eskatuko dugu. Era berean, Ikastolak indartzeko estrategiak landuko ditugu eta ikastola berriak sortzen jarraitzeko ahalegina ere egingo dugu.

62 Euskal Herriko Ikastoletako langileen lan baldintzak negoziatzen jarraituko dugu, eta horien kudeaketarako aholkuak eta laguntza emango diegu ikastolei. Jaiotze tasaren beherakadaren ondorioz kinkan egon daitezkeen ikastoletako langileen lanpostuei eusteko politikak eta negoziakzioak bideratuko ditugu: ikasgeletako ratioen jaitziera aldarrikatuko dugu, ko-irakasletza sustatu, figura berriak sortu...

63 Finantzazio publikoa areagotzeko, ikastoletako lehentasunak gauzatzeko behar diren baliabideak negoziatuko ditugu administrazioekin.

64 Bideragarritasun ekonomikorako aholkularitza ekonomiko-finantzarioa emango diegu ikastolei, eta finantza entitateekin akordio orokorrak bideratuko ditugu.



4. IKASTOLEN IRISMENA



⁶⁵ Ikastolek herri eskola izaera izan dute sortzetik, eta egun ere izaera horri eusten diote. Sortu ginenetik zerbitzu publikoa eskaini dugu, eta autoeraketan eta autokudeaketan oinarritutako eredu herritarra izan da gurea. Ikastola sareak eta ikastolek eskaintzen dituzten zerbitzuak hedatuz joan dira, baita finkatu ere. Hala ere, horiek guztiak erabat kontsolidatzeko baliabideak eskuratzeko negoziazioan eta lanean jarraituko dugu, ikastolek merezi duten aitortza, eta ez finantziazio aldetik bakarrik, jaso arteko bidea urratzen jarraituko dugu. Bestalde, erronka berriak ere baditugu ate joka: doakotasunerantz bidea egiten jarraitzea (eremu desberdinetan), 0-2/0-3 eskaintza hedatzea eta finkatzea, Lanbide Heziketaren inguruko gogoeta, gela iraunkorrak, dibertsifikazio gelak, Batxilergo desberdinak, garraioa... Lanbide Heziketan, epe ertain zein luzera begirako estrategia propioa finkatuko dugu Euskal Herri osoan, laguntzak eta aliantzak bilatu eta gizartean eragiteko. Era berean, Lanbide Heziketa hedatzearen eta egun dauden proiektuak finkatzearen inguruko gogoeta zabalduko dugu.

⁶⁶ Hezkuntza, euskalgintza eta herrigintza betidanik izan dira gure ardatz. Ikastolaren balio nagusiekin bat egiten duten eragile sozial eta instituzionalekin (euskara, parekidetasuna, aniztasuna, immigrazioa, ingurumena...) harreman sare iraunkorrak eraikiko ditugu, helburuak partekatzen ditugun heinean, ikuspegiak lerrokatu eta elkar eragiteko. Aliantza zaleak izan gara ikastolen mugimenduan; guztion arteko elkarlana eta indarrak metatzea ditugun helburu komun horiek erdiesteko estrategia eraginkorrena direla sine-tsita gaude. Ohiko aliantzez gain, gizartearen errealitateari erantzun ahal izateko aliantza berriak ere eraikiko ditugu gizarte eragile ezberdinekin, euskarazko irakaskuntza orokortzeko, hezkuntza proiektu komunitarioan urratsak egiteko edota egiten jarraitzeko.

⁶⁷ Anitzak izan nahi dugu gure izaera galdu gabe. Euskal Herriko familia guztiek Ikastola Eredua eta gure hezkuntza proiektua ezagutu ditzaten nahi dugu, eta askok eta askok ikastola proiektuarekin bat egin dezaten nahi dugu. Ikastola Ereduak egiten duen ekarpena ezagutzea, hau da, duen balio erantsiaren kontzientzia hartzea behar dugu, horrela ulertuko baitute ikastola mugimenduaren izatea eta beharra. Horretarako beharrezkoak diren baliabideak eta estrategiak aztertu, garatu eta partekatuko ditugu, aniztasunaren balioa gure diskurtsoan gehiago txertatuz.

⁶⁸ Euskal Herrian, etorkizunean, familia etorkinen kopurua hazi egingo da, eta jaiotzen diren haurrek kanpoko jatorria duten gurasoak izango dituzte portzentaje handi batean. Ipar Euskal Herrian, gainera, Frantziako Estatutik datozenen kopurua asko hazi da azken urteotan. Familia horientzako ikastola ereduak erakargarri izatea nahi dugu. Familia horiekin batera, ikastola proiektuarekin lerrokatuta, lortuko dugu etorkizuneko euskal herritarrak ere euskararen eta euskal kulturaren murgiltzea eta euskalduntasunarekiko atxikimendua lortzen joatea norberaren jatorria, kultura, hizkuntza errespetatuz eta balioetsiz, horretarako berariaz sortuko dugun plangintzari esker. Hau da, euskal herritar osoak heztea. Erronka hau gizarte osoarena den arren, ikastoletan ere erronka gisa definitzen dugu. Ondorioz, beste erakundeekin elkarlanean jardungo dugu familia horien gizarteratzean eta euskalduntzean. Gure helburuetako bat ere bada hezkuntza zerbitzua unibertsala izatea eta doakotasuna bermatzeko ezinbesteko urratsak jorratzen jarraituko dugu. Zentzu horretan, zaugarriak diren familiak ere Ikastola Eredua etortzeko aukerak zabalduko ditugu, komunikazio eta harreman bide berriak jorratuz. Asmo hauek guztiak egikaritzeko beharko ditugun baliabideak aldarrikatuko ditugu.

⁶⁹ Bestalde, ikastolek egun duten irismen maila handitzea dugu helburu, eta, ezinbestean, ikastolak hezkuntzako proiektu sozial diren heinean, kalean, komunitatean, duten presentzia, komunitateko kideekin duten harremana eta elkarlana landu behar dira. Hau da, ikastola komunitatera zabaltzeko lan egin behar dugu eta benetan gure izaera eta izatea ezagutzera eman, Euskal Herri euskaldun eta anitza berrirudikatu nahi dugulako. Jakin badakigu, gaur gaurkoz, zailtasunak izan ditzakegula familia askorengana iristeko, eta eremu horretan badaukagu zer egin.



Ikastolak Ikastola-Ereduaren hautua egiten duen pertsona orori hezkuntza eskubidea bermatzera GOAZ. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari edo generoari lotutako edozein ezaugarriengatik.

Nola egingo dugu?

1. Aukera berdintasuna

Ikastolon herritar-ereuari jarraiki, doakotasuna bermatzeko ezinbesteko urratsak egingo ditugu. Honetarako, administrazioen aurrean finantzazioa aldarrikatuko dugu. Berme hori lortzea oso garrantzitsua izango da, herritar ororentzako eskura dagoen hezkuntza zerbitzua ematen dugulako. Inbertsioak egiteko ekarpenak mugaritu ditugu. Hego Euskal Herrian, kooperatiba gisa bazkideei eskatzen diegun hasierako kapital-ekarpena gutxieneko kopuruetara jaitsiko dugu. Honekin batera, ikastolak inor ez baztertzeko neurri zehatzak landuko ditugu: beka-sistema propioak, inbertsio ekarpen progresiboak...

2. Hedapena

Ikastola-proiektua Euskal Herri luze-zabalean hedatuko dugu. Ahalik eta euskal herritar gehienek ikastola-ereduaren hautua egin dezaten, egun dauden ikastola guztiak irekita mantenduko ditugu eta, ikastolarik ez dagoen lur-eremuetan (eskualde, herrialde edo zonaldeetan), ikastola berriak irekitzeko eta beste izaera bateko eskolak ikastola bihurtzeko lan egingo dugu. Bestalde, ibilbide akademikoan zehar edozein adinetako haur eta gazte beste eskoletatik gurera ekartzeko eta ongi hartzeko lan egingo dugu.

3. Eskaintza

Gure hezkuntza-eskaintza 0 urtetik 20 urtera bitartekoa izango da lurralde guztietan, eta eskaintza areagotzeko bideak urratuko ditugu, bereziki Lanbide Heziketa eta beste prestakuntza-ibilbide edo -modalitate batzuk, eta etengabeko formakuntza bermatuz: Lanbide Heziketaren eskaintza egonkortuz, ikastoletan ikasleei ibilbide koherente ezberdinak egiteko aukera izan dezaten eskaintza zabalduz (espezializatu) eta eskaintza areagotzeko bideak urratuz. Etapa hauetan pausoak eman nahi dituen ikastolari laguntza espezifiko eskainiko diogu. Ipar Euskal Herrian 0-2 etapa proposatzea debekatua zaigunez, murgiltze ereduan ari diren haurtzaindegiekin elkarlanean ariko gara.

4. Hezkuntzako eta gizarteko eragile gisa erreferente izatea

Euskal komunitatean hezkuntzako eta gizarteko eragile gisa erreferente izateko konpromisoa hartzen dugu. Horrek esan nahi du kalitatezko hezkuntza eskaintzeaz gain, aktiboki parte hartu behar dugula gure ikasleen eta, oro har, gizartearen ongizatea eta garapen integrala sustatzen duten ekimen eta proiektuetan. Gizarteratze eta aniztasun-balioak sustatzetik hasi eta ingurumenarekiko errespetua eta herritarren parte-hartzea sustatzeraino, hezkuntza- eta gizarte-eragile gisa egiten dugun lana funtsezkoa da gizarte bidezkoago eta ekitatiboago bat eraikitzen laguntzeko.



5. PERTSONAK ERDIGUNEAN



⁷⁵ Euskal gizarteak egin duen apustu bat dira ikastolak; aurrerago definitzen diren bereizgarriak dituen euskal herritar eredu jakin bat eta gizarte euskaldun bat eraikitzeko hezkuntza proiektua da berau.

⁷⁶ Jakina da, herria edozein dela ere, hezkuntza eremu estrategikoa dela gizartearen garapenerako eta gizarteko eragile aktibo izango diren horien hezkuntzarako.

⁷⁷ Ikastoletan garbi daukagu gure egiteko nagusia dela gauden lekutik gure ikasleei pertsona ereduaren ezaugarriak garatzen laguntzea. Horrek bizitzan izango dituzten erronkei aurre egiteko eta gizartearen eraldaketan eragiteko gai egingo ditu.

⁷⁸ Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorrean jasotzen dugu pertsona ereduaren kontzeptua. Ikastolan zer, nola eta zergatik egiten dugun zehazteko ezinbesteko iparra dugu berau. Gure egite eta esku-hartzearekin garatzen lagundu nahi dugun euskal herritarraren bereizgarrien eta ezaugarrien definizioak jasotzen ditu. Hala ere, argitu beharra dago ez garela esaten ari molde bereko pertsonak nahi ditugula, ez gara pertsonen aniztasuna eta aniztasun horren beharra ukatzen ari; bakoitzak beretik garatu ditzan nahi dugun bereizgarri eta ezaugarriez ari gara.

⁷⁹ Pertsona ereduaren bitartez, gure ekarpena egin nahi diegu gizarte honetan bizi diren eta biziko diren eta etorkizuneko Euskal Herria eraikiko duten pertsona horiei. Gainera, familiarekin, erakunde profesionalekin eta gainerako eragileekin ere partekatzen dugu ikusmira hori, eta guztiok era aktiboan eta elkarrekin jarduten dugu horretan.

⁸⁰ Pertsona eredu edota euskal herritar eredu da ikastola guztiok partekatzen dugun iparra. Komunitateko kide guztientzat erreferentzia izatea nahi dugun bereizgarrien eta ezaugarrien multzoa da eta, horrez gain, inguruko erakundeekin elkarlanean orduan ere guztiok presente izan beharreko zehaztapena. Horren ondotik garatuko baititugu gure hezkuntza proiektuak, harreman instituzionalak eta alianztzak. Komunitate guztiarekin batera pertsona eredu garatzeko testuinguru aproposak sortuko ditugu.

⁸¹ Ikastoletan garatzen lagundu nahi dugun euskal herritar ereduak bost bereizgarri jasotzen ditu: euskalduna, barne sendotasuna duena, erabakitzaile-ekintzailea, eraldatzailea eta kooperatiboa. Bereizgarri horiek 18 ezaugarritan zehazten dira bigarren pauso batean.



Hezkidetzan oinarritua. Pertsonen arteko berdintasuna bermatu eta sustatzera GOAZ, aniztasuna kontuan izanik. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiegu beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera aniztasunetik, genero-baldintzatzailerik gabe, besteak beste kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu-desioaren esparruetan.

Nola egingo dugu?

1. Pertsona-eredua

Ikasleak subjektu aktibo gisa erdigunean jarriko dituen hezkuntza ereduak garatuko dugu. Hezkuntza ereduaren iparra ikastolen Hezkuntza Marko Orokorrean jasotzen den pertsona ereduak izango da, eta horren bereizgarri eta ezaugarriak garatzen lagunduko dioten esperientziak eskainiko dizkio ikasleari, mundu ikuskera zabala izanik, uneko gizartearen behar eta erronkei erantzuteko gaitasuna izan dezan. Hau garatzeko, Ikastolen Elkarateak inplementazio ezberdinak aztertu eta aitortuko ditu eta horretarako zerbitzuak eskainiko ditu ikastolen arteko elkarlana eta zuzilana sustatuz eta sinergiak probestuz. Kooperatiban ere pertsonak erdian jarriko dituen ereduak sustatuko dugu, zeharkako kompetentzietan eta giza prestakuntzan sakonduz. Adostu dugun pertsona ereduak egia bilakatzeko, burutzen ditugun ekimenak eta jarduteko modua horrekin lerratuta egon beharko dira, ikasketa prozesuan zehar neurketarako moduak zehaztuz. Datuen analisisian oinarritutako ereduak hau guztia ere bere gain hartuko du eta, besteak beste, ikasleen jarraipena ibilbide osoan zehar modu erantsian egitea ahalbidetuko du eta modu orokorrean ikastola bakoitzeko eta taldeko (taldea osotasunean hartuz) proiektu pedagogikoen, hezkuntza helburuen eta pertsona ereduaren garapen mailaren jarraipena neurtzea posible egingo du. Honek, era berean, gure hezkuntza planteamenduaren etengabeko hobekuntzan eragina izango du, besteak beste, ekintza-inpaktu neurketa eta alderagarritasuna ekarriko duelako. Pertsona ereduak gain, ikastolako irakaslearen profil kompetentziala ere definitu beharko dugu, elkarzaintza bultzatuz eta etengabeko ebaluaziorako aukera eskainiz, eta, beharrezkoa balitz, Ikastola Eredurako egokia den irakasle master homologatua eskainiz. Ikasleak erdigunean jartzeko metodologia eta hezkuntza hautu berrituak egin beharko ditugu; izan ere, gela galera gertatuko bada eta irakasleak galduko baditugu, hezkuntza proiektua dugun egoerara egokitu beharko dugu.

2. Inklusio-markoa

Ikastolen Elkarateak landutako inklusio-markoa erreferentziazkoa izango da ikastola guztientzat, inklusioari modu egokian ekiteko tresna gisa. Eta gure ikasleei behar duten arreta ematen jarraitzeko baliabideak eta figura berriak (psikologoak, logopedak, erizainak, gizarte laguntzaileak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, psikomotrizistak, ongizateaz arduratzen direnak, ...) sortuko ditugu. Inklusio-markoan, formakuntza eta sentsibilizazioa ardatz izango dira eta tresna bereziak sortuko ditugu irakasle, familia eta ikasleekin lantzeko (baliabideen gida bat edota unitate bereziak, adibidez). Gaiaren inguruan lan egiten jarraitzeko, orain arteko bidetik, elkarlanean arituko gara baliabideak ekoitzi eta gogoetak partekatzeko.



3. Formazioa

Langileen, familien eta ikasleen formazioan Prestakuntza eredu bera arakatuko dugu, hasierako prestakuntza diseinatu eta prestakuntza jarraituarekin eta bitzta osorako prestakuntzarekin osatuko dugu. Ikastolarekiko atxikimendua garatzen lagunduko duen prestakuntza ere sustatuko dugu. Pertsona Ereduaren garapena bermatzeko ezinbestean profesionalak bereizgarri eta ezaugarri horietan formatu eta trebatuko ditugu. Ikasleen bitzta proiektuan (bere alderdi pertsonalean eta akademiako-profesionalean) bidelagun izateko tresnak eta baliabideak eskainiko dizkiogu irakasleari.

4. Zaintza

Pertsonen eta inguruaren zaintzarekiko ikastolen etengabeko konpromisoa indartuko dugu, ikastolen misioarekin eta irudiarekin lerrokatutako komunitate sendoak sortuz. Izan ere, pertsona eredu lantzerakoan ez gara soilik ikasleaz era isolatuan arituko, ikaslea komunitatearekiko harremanean landuko dugu. Honekin batera, gure ikasleen eta langileen ongizatea zaintzeko eta jazarpenetik babesteko figura, lanpostu eta espazio berriak landu, sortu eta aldarrikatuko ditugu eta ekinbide berriak gauzatuko ditugu, ikastolak espazio psikologiko seguru bihurtuz. Elkarbizitza eta zaintza komunitarioa izango ditugu helburu, eta horretarako emozioak lantzeko eta elkar entzuteko espazioak eta uneak sortuko ditugu. Era berean, langileen ongizatea zaintzeko neurri prebentiboak hartuko ditugu: garapen pertsonalerako formazioak, langile foroak, lan baldintzen hobekuntza... "barne-sendotasuna" bereizgarriaren lanketaren baitan. Norberaren zaintzatik abiatu, elkarren zaintzara iristeko.



6. HEZKUNTZA-PROIEKTUA



⁸⁷ Aurreko txostenetan aipatu dugu ez daukagula hezkuntza proiektu partekatu-rik, baina bide honetan elkarlanean hasita gaudela ere azpimarratu beharrekoa da. Gainera, aukera berri baten aurrean gaude; aipatu dugu ikastola guztiok partekatzen dugun pertsona eredu definitu dugula guztion artean, honek guztiari lur zoru komun bat jartzen dio zer egin behar dugun zehazteko, egiten dugun hori zertarako egiten dugun jakiteko eta nola egin behar dugun argitzeko. Hezkuntza Markoan oinarritzen diren praktika pedagogikoen inguruan eztabaidatuko dugu; egungo egoeraren diag-nostikoa eginez, ikuspegi eta beharrak jasoz eta erabakiak hartuz, ikastolen aniztasunari erantzuteko. Ikastolen Elkartek lidergoa hartuko du ikastola guztiok partekatzen dugun Hezkuntza Marko Orokorra eta Pertsona Eredua garatzeko hezkuntza proiektuari buruzko hausnarketan, diseinuan eta honen ezarpenean. Jakina da ez dela bide laburra izango, hainbat osagai komun garatu beharko baititugu edota gutxienik horien inguruan elkarrekin jardutera behartuta egongo baikara:

⁸⁸ • Curriculum proiektu ezberdinak arakatu beharko ditugu, eta guztiok erabaki beharko dugu Curriculum bateratu bat eraiki edota gaurkotu behar dugun (Euskal Curriculuma). Aldi berean, Euskal Curriculuma Euskal Herriko ikuspegia ziurtatuko badu ere, tokiko curriculumak inplementatzeko aukera behar dugu ingurune hurbilarekin lotura bermatzeko.

⁸⁹ • Hizkuntza proiektuen (eredu bateratu batean oinarrituak) eta hauen garapenaren inguruan ere jardun beharko dugu.

⁹⁰ • Inklusio esparruan ere ikasleen bidelagun izateaz, hezkidetzaz, elkarbizitzaz, orientazioaz, aniztasunaz, kulturartekotasunaz, lan irteerez eta bizi proiektuaz (helburu pertsonal, hezkuntzakoak, profesionalak eta sozialak) jardun beharko dugu ikasgai guztietan modu transbertsean; hau da, inklusioa modu bateratuan ulertzeko erronka daukagu. Horretarako, baliabide, formazio eta denbora gehiago edukitzea ezinbestekoa da.

⁹¹ • Ikasmaterialen eskaintzaren eta erabileraren inguruan ere hausnartu beharra daukagu. Ikasmaterialen sorkuntza zutabe eta erreferentzia nazionaletan oinarrituak izateaz, horien erabileraz, sostenigarritasunaz, negozio ereduaz (esklusibotasuna, besteak beste) eta abar.

⁹² • Digitalizazioaren inguruan ere ikertu eta hausnartu beharra daukagu. Jakin badakigu etorkizuneko gizarte eredu digitala ere izango dela eta guk ere digitala eta mundu globalaren parte den Euskal Herria, euskal gizartea, irudikatu behar dugula. Definitu dugun euskal herritar eredu mundu horretan biziko da, eta horretarako digitalki ahaldundua egon beharko du. Gure ustez, bi eremutan erabakiak hartzea eskatzen digu honek guztiak: digitalizazio etiko eta arduratsua eta teknopedagogia edo tresna digitalen integrazio pedagogikoa.

Horregatik guztiatik, digitalizazio-ereduaren gaineko erabaki berriak hartu behar ditugu. Urteetako esperientzia eta ebidentzia zientifikoak abiapuntu hartuta, digitalizazio eredu ezin dugu ikuspegi instrumentalista hutsetik eraiki, digitalizazio eredu printzipio eta balioei lotutako hautu politiko bat baita. Era berean, teknopedagogiari dagozkion erabakiak hartu behar ditugu, digitalizazioaren intentsitatea jaitsez eta tresna digitalen integrazio pedagogikorako markoa ebidentzia zientifikoaren eta gure esperientzia propioaren gainean eraikiz.



⁹³ • Hezkuntza ez arautuaz, hau da, aisialdi eredu euskaldunaz jardutea ere eskatuko digu. Ezaugarriez eta eskaintzaz, Euskal Herriko toki ezberdinetako ikasle, familia eta profesionalak elkartzeaz, harremanetan eta elkarlanean jarduteaz eta abar. Hau da, ikastolaren testuinguruan kanpo eragileekin ekosistema bat eraikitzen lagunduko duten hezkuntza testuinguruak sortzea (batzordeak, ikasketa zerbitzuak, boluntariotzak eta gizartearekin erlazionaturiko proiektuak).

⁹⁴ Lurralde eta arlo ezberdinetako ikuspegiak eta profesionalen ezagutzak batu beharko ditugu hau guztia arakatu eta zehazteko, eta, ondotik, hainbat erabaki hartu beharko ditugu: garapen komunak egin beharko ditugu Euskal Curriculumaren eguneratze prozesuan, hizkuntza proiektuen baitan, ikasmaterial berrien sorkuntzan eta aisialdi ereduan.

⁹⁵ Aldi berean, ikastola bakoitzaren errealitate eta testuinguruaren baitan kokatu beharko gara eta horrek lehendabizi ikastolak hobeto ezagutzea, ikastoletatik gertuago egotea eta gure arteko harremana konfiantzazko giroan eraikitzea eskatzen digu. Ezinbestekoa izango da ikastolen nahi eta beharrak ondo ezagutzea eta ikastolen ezaugarri eta aukerak garbi edukitzea, ondoren, horien arabera aholkularitza, akonpainamendua, eta prestakuntza eskaini ahal izateko. Eztabaidatuko dugu Ikastolen Elkartek nola eraikiko duen Hezkuntza Marko Orokorrean oinarritzen den eta berrikuntza eta hobekuntza helburu dituen egitasmo propioa. Ikastolek ideia honen inguruan zein pertzepzio duten aztertu eta benetan gauzatzeko aukerak bilatuko dira. Akonpainamendu eta aholkularitza ere Hezkuntza Marko Orokorrearen arabera izango da, eta beraz, Ikastolen Elkartearen egitasmo propio hori, Hezkuntza Marko Orokorra eskatzen duenaren zerbitzura egongo da.

⁹⁶ Euskal Herrirako hezkuntza proiektua eraikitzen jarraitu nahi dugu, urrats berriak egin nahi ditugu. Ikuspegi organizatiboan, ideologikoan zein pedagogikoan eragin beharko dugu, eta horretarako jardun eta eztabaidatu beharko dugu. Horrekin guztiarekin ikastolen mugimendua sendotzeko eta kohesionatzeko helburuari heldu nahi diogu. Administratiboki banatuta bagaude ere, gure apustua ikastolen hezkuntza-proiektu oinarritzko eta komunaren eta hezkuntza sistema nazionalaren eraikuntzan aurrera egitea da.

⁹⁷ Ikastolen eta Ikastolen Elkartearen arteko harreman-sare sakonagoak, esanguratsuagoak gardenagoak, gertuagokoak eta eraginkorragoak eraiki nahi ditugu. Ikastolak hobeto eta barrutik ezagutzea eta dituzten behar eta nahiak identifikatzea beharrezkoa da guretzat. Entzute-aktiboko ariketa zabala egitea eskatzen digu, ikastolek gure gertutasuna sentitu behar dute. Ikastolen Elkartek Ikastolen zerbitzura lan egiten du eta elkarrekiko konfiantza giro horrek jarduteko modu berriak ekarriko ditu. Hori guztia baliagarria izango zaigu Ikastolen Elkartearen egiteko garrantzitsu bat elkarrekin pentsatu eta diseinatzeko: zer nolako akonpainamendu ibilbideak beharko ditugun, nolako aholkularitza zerbitzua, zein prestakuntza eskainiko dugun, zer aisialdi eredu eskainiko dugun, eta baita Ikasleekin bitartez zeintzuk material didaktiko eskainiko ditugun.



Ikastolon hezkuntza-proiektua Euskal Curriculumetik euskal herritar ereduari begira eraikia izango da. Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko da. Pertsona Ereduaren ezauzgarri eta bereizgarrien garapenerako ikas-esperientzia zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Kanpo zein barne ebaluazio sistema hezitzailea eraikiko dugu, ebidentzia zientifikoetan oinarritutakoa eta hobekuntzara bideratua. Hezkuntza proiektu eraldatzailea eta burujabea eraikitza eta eskaintza GOAZ.

Nola egingo dugu?

1. Euskal Curriculum

Euskal Curriculumean sakontzen eta berau eguneratzen egingo dugu lan. Hone-tarako, Estatuak ezartzen dizkiguten curriculumak aztertuko ditugu eta Euskal Curriculum lurralde osoan hedatzeko eta gizarteratzeko aukerak landuko ditugu, bakarka edota beste eragile batzuekin, eta elkarlana sustatuz. Tokian tokiko errealitateari lekua egingo zaio Curriculumean eta ikastoletan egiten den tokiko lan hori bildu, antolatu eta sistematizatuko dugu etapetako programazioan txertatuz. Begirada feministaz blaituko dugu Curriculum, lantzen ditugun edukietan eta erabiltzen ditugun metodologietan txertatuz. Ebaluazio hezitzailean sakondu eta ezarpenerako behar den formazioa landuko dugu, baita gure langile eta profesionalen ebaluazioa burutzeko ere.

2. Hezkuntza-proiektuak

Hezkuntza proiektu euskalduna, burujabea eta kritikoa eraikitze oinarri eta euskarri komunak diseinatu eta zabalduko ditugu: Hezkuntza Marko Orokorra, ikasmateria, prestakuntza-aholkularitza... Transbertsalak diren gaiak lantzetik hasiko dugu euskarri komunera eraikuntza.

3. Hezkuntza Marko Orokorra

Hezkuntza Marko Orokorrean oinarritzen diren proiektuak garatuko ditugu ikastola guztietan. Marko hau izango da bai Ikastolen Elkartearen eta bai elkarte osatzen dugun ikastolon ipar eta zoru komuna. Bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta, gure hezkuntza-proiektuek oinarritzko elementu komunak izango dituzte. Ikastolen Elkartek Hezkuntza Marko Orokorrean ezarpenean eta honen ondoriozko tokian tokiko egokitzapenetan aholkularitza pertsonalizatua eskainiko die ikastolei (hasierako prestakuntza eta prestakuntza jarraia barne). Inplementazio desberdinetarako bideak zabaldu eta martxan jartzeko lagunduko du. Ikastolen Elkarte, ikastola bakoitzaren bidelagun izango da ezarpenean.

4. Ikasmaterialgintza

Ikastolen Elkartek edo ikastolek elkarlanean, Ikaslekarren bidez, Hezkuntza Marko Orokorreari erantzunez Ikastolon behar anitzak asetuko dituen ikasmaterial malguak garatuko dituzte erreferentziatzeko materialak edo sortuta dauden materialak oinarri hartuta. Hezkuntza nazionala eraikitze bidea emango duten ikasmaterial horiek lurraldetasunean eta herritartasunean oinarritutako zutabeak eta erreferentziak izango dituzte, irakaslegoa ahalduz bide emango dute eta erabiltzaileentzat ekonomikoki eta ekologikoki jasangarriak izango dira. Sortutako material horiek kompetentzien oreka eta ekuanimitatea kontuan hartuko dituzte, ikastola guztien eskura jarriko dira gelartzeko beharrezkoa den aholkularitzarekin batera. Honetarako, ikasmaterialgintzaren eta haren salmentaren inguruko hausnarketa egingo da.



5. Digitalizazioa

103

Jakina da: teknologia ez da neutrala. Digitalizazioa askotariko norabide eta intentsitatetan egin daiteke; digitalizazio eredu definitu eta eraiki egiten da. Ildo horretan, gure digitalizazio ereduak etiko eta arduratsua izan behar du eta digitalizazio eredu hori garatzeko bideari ekingo diogu. Honako ezaugarriak izango ditu:

- **ESKUBIDE DIGITALAK:** haurren eta hezkuntza komunitate osoaren eskubide digitalen errespetua eta pribatutasuna bermatzen ditu.
- **AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOAK:** hezkuntza-sistemaren kontrolpean dauden zerbitzari eta euskarazko tresna libre, ireki eta auditagarriekin eraikitako azpiegitura du eta, ahal den neurrian, burujabetza teknologiko osoa bilatzen du.
- **BARNE-KUDEAKETAREN DIGITALIZAZIOA:** barne-kudeaketari lotutako zereginen digitalizazioa, ahal den neurrian, burujabetza teknologikoaren norabidean kokatzen diren tresnekin egiten du.
- **IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUEN DIGITALIZAZIOA:** ahalduntze digitala du helburu eta, horretarako, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hezkuntzaren funtzio soziala indartuko den unean (zein etapa, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren zein zatitan) eta moduan (zein intentsitatetan, zein tresnekin) digitalizatzen ditu.
- **HEZKUNTZA KOMUNITATEAREKIN KOMUNIKATZEKO KANALEN DIGITALIZAZIOA:** hezkuntza komunitatearekin komunikatzeko hautatzen diren tresnek komunitateko kideen tresnen aukera-askatasuna bermatzen du.

Ikastola guztietara iristeko, Ikastolen Elkartea bidelagun izango da digitalizazio prozesuan, beti ere ikastolen autonomia bermatuz.

6. Formazioa-aholkularitza

104

Langileen formazioan jauzi bat egin behar dugu. Ikastoletako langileak ahaldunduta eta eguneratuta egoteko baliabideak eskainiko ditugu, Hezkuntza Marko Orokorrean jantzitako profesional kualifikatuen bitartez. Ikastoletako langileen hasierako formazio-plan orokorra eta gerokoa diseinatu eta bateratuko ditugu, tokian tokiko zehaztasunak txertatuz, ahal den neurrian. Zehar-lerroetako formazioa indartuko dugu eta formazio plan hau integrala izango da: langileei eta familiei zuzendutakoa. Hazkunde profesional eta pertsonala bermatuko dituen plana izatea nahi dugu. Plana osatzeko barne zein kanpoko formatzaileak identifikatuko ditugu gaiaren arabera, eta lankidetzaren eremuak aztertuko ditugu ikerketa eta aditu zentro desberdinekin. Formakuntzetan elkarrengandik ikasteko aukera arakatu eta ikastolen artean langileen trukaketak burutzeko aukera aztertuko dugu. Honetaz gain, familiei begirako Guraso Eskolak moduko proposamen bat landuko dugu. Hau guztiarekin batera, ikastolei formazio beharren hasierako diagnostia egiten lagunduko diegu. Berrikuntza edo arduradun pedagogikoen figura aldarrikatuko dugu ikastola guztientzat. Eta Pertsona Ereduaren inguruan dauden esperimentazio edo pilotajeak sustatu eta gertutik jarraituko ditugu. Era berean, formazioak dakarren ebaluazioan ere urrats kualitatiboak egin beharko ditugu.

7. Hezkuntza ez formala

105

Aisialdiko gure eskaintza gure Hezkuntza Marko Orokorrearekin koherentzian gartuko dugu, eta Zirimola taldearen eredu ikastola guztietara hedatuko dugu. Horretarako, Pertsona Ereduarekin lerrotatzen diren jakintza eta arte adierazpen ezberdinetako eskaintzak eta adituak katalogo batean bilduko ditugu. Ikasleen interes-guneetatik abiatuko gara horiek diseinatzerako orduan, eta eskaintzaren irisgarritasunari ere erreparatuko zaio. Horretaz gain, hezkuntza eta gizarte eragileekin eta administrazioekin batera hezkuntza ez-arautua garatzeko aukera aztertuko dugu.



Euskal Herrira etortzen direnen jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar ere izateko baliabideak eskainiko dizkiegu (profesionalei, familiei eta ikasleei), eta, aldi berean, euren ekarpenak aberastan gisa ulertuko ditugu. Jatorri askotariko ikasleak modu orekatuan ikastolaratzera GOAZ, euren beharrak aintzat hartuz.

Nola egingo dugu?

1. Harrera-protokoloa

Egun, zenbait ikastolatan lantzen ari diren harrera-protokoloa baloratu, egokitu eta hedatu egingo dugu. Era berean, aisialdiko momentu eta eskaintzak baliatuko ditugu, inklusioari eta hizkuntzaren jabekuntzari begira duten garrantziagatik. Komunitatearen elkarlana sustatuz, herri mailako eragile ezberdinekin lankidetzan jardunez eta ditugun tresna teknologikoak baliatuz familia etorri berrienganako lehen kontaktua beraien hizkuntzan egiteko ahalegina egingo dugu.

2. Harrera-plana

Egun, zenbait ikastolatan lantzen ari diren harrera-planak baloratu, egokitu, hedatu eta martxan jarriko ditugu, tokian tokiko ezaugarrietara egokituz, unean sortzen diren beharren arabera egokitzapenak txertatuz, komunitatearen elkarlana sustatuz eta herri mailako eragile ezberdinekin batera lankidetzan. Esku-hartzeko estrategia desberdinak aztertuko ditugu, eragileekin partekatu eta irakasle, ikasle zein familiei prestakuntza eskainiko diegu, beti ere, kulturartekotasuna sustatzeko bideak jorratuz. Ikastola guztiek harrera-plana izango dute, eta arian-arian baloratu eta egokituko da. Harrera-planak Ikastolen Elkarteak zehaztutako oinarrizko zenbait elementu jasoko ditu.

3. Murgiltzea

Martxan jarri ditugun murgiltze-gelen inguruko balorazioa eta egokitzapenak egingo ditugu baliagarriak izan daitezen ikastolentzat, giza baliabideen beharretan ere arreta jarritz. Hizkuntza eta kultur murgiltze eredu desberdinen inguruko gogoeta sakonagoa sustatuko dugu eta adin desberdinetako ikasleei begirako esku-hartze ereduak diseinatzeko gogoeta egingo dugu.

4. Baliabide eta estrategia didaktikoak

Hizkuntza eta kultura berri baten eskuratzea prozesu luzea da eta murgiltze-geletatik harago doa. Hartara, irakasleei baliabide eta estrategia didaktikoak eskainiko dizkiegu, hizkuntzari eta kulturari dagokien aldamaian egokia eskain dezaten.



7. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

¹¹¹ Euskararen ezagutzan eta erabileran geldotze-fase bat bizi dugula diote hainbat adituk. Txanpon beraren bi aldeak dira ezagutza eta erabilera, eta bietan ala bietan eragitea dagokigu ikastoloi. Berreskuratze bidean dagoen hizkuntza batek hiztunak, espazioak eta tresnak behar ditu. Hitzunei dagokienez, ikastolok ekarpen ikaragarria egin dugu belaunaldi berriak euskaldunduz. Halere, azken boladan badago nolabaiteko kezka ikasleen euskararen ezagutza erlatiboaz, eta erosoago duten hizkuntzaz. Izan ere, horrek zuzenean eragiten dio erabilerari. Horrekin batera, egungo mundu globalizatuan arriskua dago euskarak eta gurea bezalako hizkuntzek espazioak galtzeko. Alde horretatik, nola ez, ikastola bera beti izan da euskararen arnasgunea, eta hala izaten jarraitu beharko du. Horrek guztiak, beraz, gure estrategia berrikustea ekarriko du, eta egoera horri buelta eman beharko diogu ikastoletatik. Euskalgintzarekin aliantzak egiteak, murgiltze eredua hedatzeak, hizkuntza proiektuak garatzeak, administrazioei presioa egiteak eta Ikastola Eredua gaurkotzeak eragin zuzena izango dute horretan guztian.

¹¹² Biziberritze edota indarberritze fase batera jauzi egin nahi dugu hezkuntza arautuan nahiz aisian eraginez, eta aukera berriak eskainiz. Murgiltze ereduak ikasten duten ikasle kopurua gehitzeko erronka daukagu, hizkuntza erabileran eragitekoa, hizkuntzaren ezagutzan sakontzekoa, ikastolen hizkuntza eta kultur-ekosistema euskaldunduzkoa, eta honen barruan bereziki aisialdi euskaldunago bat eraikitzekoa... Azken buruan, gizarte euskaldunagoa lortu nahi dugu. Lurraldearen baitan egoera ezberdina bada ere, kasu guztietan aipatutako eremu bakoitzean badaukagu non jardun.

¹¹³ Bizi garen mundu globalizatu honetan, euskal kulturak adierazpide guztietan bere tokia izatea nahi dugu. Euskaldun orok euskararekiko atxikimendua (motibazioa) piztea edo biziagotzea dugu helburu, honela bere hizkuntza erabilera hautuan eta kultur ekoizpen zein kontsumoan eragitea lortuko dugula sinistuta baikaude. Aisialdian eta hezkuntza formalean abiatutako eta abiatu beharko diren egitasmo eta saiakera guztiek hizkuntzaren erabilera naturalizatzen lagundu beharko dute, euskaraz jardutean eroso sentitzen diren euskaldunak gero eta gehiago izan daitezen eta, oro har, euskal hiztun osoak gero eta gehiago izan daitezen. Euskal hiztun osoa izateaz ari garenean, euskal hiztun kontziente, koherente eta kompetenteaz ari gara. Bestalde, ikasleak euskal identitate propioa eraikiko du eta gizartean eraikitzeak askotariko moduak esperimendatuko ditu, gainerako eragileekin elkarlanean, Euskal Herriaren eraldaketa sozialean aktibo izanez.

¹¹⁴ Hori guztia ez dugu bakarrik egingo; aliantzak behar ditugu horretarako. Aliatu gertukoak eta ikusmira hori partekatzen lehenak familiek izan behar dute. Familien proaktibotasuna bilatu behar dugu, beraiek ere eragile bihurtu behar ditugu eta horretarako sentsibilitatea, estrategiak eta laguntza beharko dituzte. Ikastolak eta familiek ikuspegi partekatua izatea da lehen urratsa; hala ere, ikastolatik eta etxetik ateratzen garenean bizi dugunak ere eragin zuzena du. Hori dela-eta, hizkuntz politika berriak behar eta exijituko ditugu, euskarari dagokion tokia eskainiko dioten arau, betebeharrak eta legediak behar ditugulako. Euskarak kaleak, mundu digitala eta harremanak berreskuratzeak bai eta kalitatezko euskarazko eduki digitalak sortzeko premiak ditu eta horretarako ere aliantza estrategikoak eraiki eta bilatuko ditugu.



¹¹⁵ Euskal Herria gero eta anitzagoa den honetan, badugu zaharra bezain berria den erronka bat: bertakoak izanik euskaldunak ez diren familiena eta familia etorri berriena, alegia. Euskal herritar guztion erronka da beraien barnean, norberaren hizkuntza eta kulturaren aitortzatik abiatuta, euskara eta euskal kultura ezagutu eta bizitzeko nahia herri honen parte izateko motor bilakatzea. Euskarak eta euskal kulturak tokia badute, norbere sentitzen dugulako izango da eta bakoitzak dakarrenarekin batera, Euskara eta Euskal kulturari leku egiten jakin dugulako. Norbere izaeran, norbere kultur erreperitorioan, euskal izateak tokia egiten duen heinean lortuko dugu euskara eta euskal kultura ere guztiona izatea.

¹¹⁶ Tarte hau amaitzeko langileak ere izan behar ditugu hizpide; langileak, haien hizkuntz gaitasun maila eta euskal kulturaren inguruko ezagutza maila. Langileak dira ikasleen eta familien aurrean eredu, erreferente esanguratsu, eta hori argi izan beharreko gakoa da. Familien proaktibotasunarekin batera, hizkuntzarekiko eta euskal kulturarekiko langileen atxikimendua, konpromisoa, da landu beharrekoa. Pertsona Ereduan “euskalduna” bereizgarrian jasotzen direnak gure egitea behar dugu, guk izan behar dugu horretan eredugarri.

¹¹⁷ ***Euskara eta euskal kultura ardatz izango ditugu. Benetako murgiltze ereduak gauzatuko dugu, oraingo Hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunek eta euskararen ez ofizialtasunak dakartzaten oztopoak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diegu euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direla.***

Nola egingo dugu?

1. Euskal kultura

¹¹⁸ Euskal Kulturaren transmisiorako, Euskal Curriculumean ardatzutako diziplina arteko planteamendu pedagogiko zehatza landuko dugu, ikastola guztiek bermatu dezaten euskararen eta euskal kulturaren transmisio egokia, ikasleen errealitate eta interesekin uztartuz. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ardatz izango duen estrategia ideologiko-pedagogikoa garatuko dugu. Euskal Kulturaren sorkuntza sustatzeko proiektuak bideratu eta erreferenteak sustatuko ditugu ikastoletan. Gai hauetan sakontzeko eragileekin aliantzak sortuko ditugu. Tokian tokiko kultura kokatzeko aukerak eskainiko dituzten unitate osagarrietarako proposamen gidatuak ere eskainiko dira ikasleek sentitu dezaten ikastolak herritik sortuak garena eta herriarentzat ari garena. Etxean edo inguruan euskararen presentzia urria denean, ikasleak euskalduntzeko eta euskal kulturaren murgiltzeko ahalegin berezia egingo dugu.

2. Aisialdia

¹¹⁹ Antolatua den aisialdiko gure eskaintza areagotu egin behar dugu, ikastoletan aisialdi talde edo erreferentziak sortuz eta gazteei aisialdirako euskarazko baliabideak emanez herrian eragile euskaldunak sortu daitezten. Eskaintza zabaltzeko eta hartzailak ugaritu behar ditugu. Aisialdiko begiraleak hautatzeko orduan, euskararekiko atxikimendua eta konpromisoa duten euskaldun profilak bermatuko dira. Herriko beste aisialdi taldeekin ere aliantzak bilatuko dira, kasu hauetan ere, begiraleen profila berdina izan dadin. Antolatua ez den edo librea den aisialdia ere euskaraz izan dadin jendartearen sortzen edo abian diren ekimen desberdinak bultzatuko ditugu (Pantailak euskaraz...). Bi ildo arakatuko ditugu: batetik, aisialdi eskaintzaren egiteko ordaintzen dena aztertuko dugu eta, bestetik, guztien parte-hartzea bermatu ahal izateko bideak arakatu eta ikastolekin adostuko ditugu. Ikasle eta familien interesguneetatik eraikiko dugu eskaintza, eta euren iritzia biltzeko mekanismoak sortuko ditugu. Nerabe eta gazteen beharrezkoak eta nahiak bereziki kontutan hartuko ditugu aisialdiko eskaintza erakargarria izango dela ziurtatzeko, euskararen eta gure balioetan oinarrituta.



3. Euskararekiko konpromisoa

Curriculumean soziolinguistikako unitate didaktikoak sortuko ditugu ikasleen euskararekiko eta euskal kulturarekiko konpromisoa sendotzeko. Ikastoletako eta Ikastolen Elkarteko profesionalei nahiz ikastolako komunitateko kideei soziolinguistikako formazioa emango diegu euskararekiko eta euskal kulturarekiko konpromisoa indartzeko; besteak beste, honakoak: soziolinguistikaren inguruko ezagutza indartzea, hizkuntzaren inguruko diskurtso berriak eratu eta zabaltzea (hizkuntza ekologia, aniztasuna, bizikidetzeta eta bizikidetzaren hiru balio nagusiak: aukera berdintasuna, askatasuna eta justizia soziala), euskararen ulermenari bizikidetzeta linguistikorako duen balioa aitortzea (izan ere, ulermena da gutxienezko baldintza hiztunen arteko aukera berdintasuna egon dadin)... Honekin batera, gure profesionalen euskara maila puntakoa izan dadin baliabideak eskainiko ditugu Leizaur euskaltegiaren bidez. Ikastola komunitatea osatzen duten ikasle zein familiak euskararekiko eta euskal kulturarekiko konpromisoa indartzeko ekintza zehatzak egingo ditugu, eta tokian tokiko euskalkiei garrantzia emango diegu. Familiek duten rol aktiboaz kontzientzia hartzeko ekintza zehatzak diseinatuko dira. Horrez gain, eremu soziolinguistikoko ezberdinetako ikasleen arteko trukeak egingo ditugu, ikastola orduz gain, aisialdian eta familia giroan euskaraz bizi daitezen eta euskararekin zailtasunak dituzten gurasoentzat euskara ikasi edota hobetzeko estrategiak diseinatuko ditugu. Hainbat eremu eta adinetan, euskara eta ludikotasuna lantzea sustatuko dugu, euskara jolasarekin lotuz.

4. Hizkuntza Proiektua

Ikastola guztietan garatuko da parametro adostuetan oinarritutako Hizkuntza Proiektua, tokian tokiko errealitatea kontutan hartuz eta, lidergo rol batetatik, inguruko aliatu eta erakundeekin elkarlanean jardunez.

5. Pertsona Eredua

Hezkuntza Marko Orokorrean finkatutako Pertsona Ereduan jasotako “euskalduna” gure bereizgarri nagusia izango da. Euskaldun aktiboaz ari gara, eguneroko bizitzan euskaraz bizitzeko hautua egingo duen ikaslea, eta euskararekiko atxikimendua agertuko duena. Hori erdiesteko estrategiak landu eta partekatuko ditugu ikastola guztietan.

6. Kanpo ebaluaketa

Ikasleen ibilbidean zehar lortu beharreko euskara gaitasuna eta euskal kulturaren ezagutza finkatuko ditugu eta kanpo ebaluaketa bidez neurtuko.

7. Aldarrikapena

Bakarka edota beste eragile batzuekin elkarlanean euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa, euskal kulturaren transmisioa eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatuko dituzten legeak eta politikak era aktiboan aldarrikatuko ditugu Euskal Herri osoan.





Nola egingo dugu?

1. Ikasleek eta gazteek euskara ez erabiltzera daramatzaten arrazoiak sakon aztertuko ditugu

Modu ahalik eta zientifikoenean arrazoi horiek aztertu egingo dira, eraginkorragoak izateko soluzioetan. Beste hizkuntza batzuetako errealitateekin ere alderatuko dira, hortik ikasteko, behar bada.

2. Bizitza eta gizarteko esparru guztiak kontuan dituen euskararen erabilera areagotzeko dinamikak martxan jarriko ditugu

“Euskaraz bizi” moduko ekimenekin jarraituko dugu, baina ikastolako eremutik harago joanez, familietara, etxeetara eta herriko bizitzara zabalduz. Ikastolatik hasi eta kanpora doan olatu bat sortu behar dugu. Horretarako herrietan aritzen diren beste euskal erakundeak ere kontuan izango ditugu eta gainerako ikastetxeen inplikazioa ere bilatuko dugu.

